



## **Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak Zineuskadirekin lankidetzan 255.000 euro emango ditu konfinamenduaren inguruko 7 film labur ekoizteko**

- **Ikus-entzunezko sektoreak bizi duen egoera zailaren aurrean, Autonomia governuak ezinbestekotzat jo du jarduera mota horretako proiektuak lankidetzaren bidez sustatzea, eta kasu honetan, Eusko Jaurlaritzaren, Zineuskadiren, EITBren, Donostia Zinemaldiaren, Zinebiren eta EZAren arteko lankidetzaren baliatzea da horretarako.**
- **Euskadiko A kategoriako zinemaldiek, hala nola Donostiako Zinemaldiak eta ZineBik, beren programazioan deialdi honen bidez eskuratutako film laburrak sartzeko konpromisoa hartuko dute. Horrek lan horiek EAEko gizartearentzat eskuragarri egotea bermatuko du.**

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eta Zineuskadik osotara 255.000 euroko aurrekontua duen diru-laguntzen programa bat abiarazi du COVID-19ak ekarritako eszenatoki berriari, zehazki konfinamenduari buruzko zazpi film laburren ekoizpena babesteko, eta horrela Euskadiko ikus-entzunezko jarduera profesionala suspertzeko, pandemiak nabarmen kaltetu duen sektorea den aldetik.

Gainera, Euskadiko A kategoriako zinemaldiek, hala nola Donostiako Zinemaldiak eta ZineBik, beren programazioan deialdi honen bidez eskuratutako film laburrak sartzeko konpromisoa hartuko dute. Horrek lan horiek EAEko gizartearentzat eskuragarri egotea bermatuko du.

Krisialdiak kulturaren eta zinemaren sektorearen jarduna eten duen eta haiek ekonomikoki mehatxupean jarri dituen testuinguru honetan, ezinbestekoa da horien jardura dinamizatuko duten proiektuak sustatzea elkarlan-prozesuan bidez, eta horren adibide dugu deialdi hau: zehazki, Eusko Jaurlaritzaren, Zineuskadiren, EITBren, Donostiako Zinemaldiaren, ZineBiren eta Ezaeren arteko elkarlana egiten du.

Ekimen hau Kultura eta Hizkuntza Politikaren Sailak osasun-larrialdiaren ondorioen aurrean kulturaren sektorea babesteko ezarri duen 2.645.000 euroko laguntza-poltsan sartzen da.

Deialdia EAEko ikus-entzunezko sektoreko profesionaleri zuzenduta dago, haiek zazpi film labur eta ondoren lan konposatu modura deialdiak ematen dituen film laburrak harilkatzen dituen film luze bat ekoizteko. Ekimen honen bitartez, ikus-entzuleek konfinamenduaren inguruko zazpi erretratuz, zazpi begiradaz, gozatzeko aukera izango dute.

Eskaerak aurkezteko epea **Zineuskadiren** webgunean ([www.zineuskadi.eu/Convocatorias](http://www.zineuskadi.eu/Convocatorias)) deialdia argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta argitaratu eta hamabost egun baliodunera amaituko da.



Horrez gain, proiektu hau Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politikaren Departamentua eta Zineuskadi, profesionalen elkartekin eta sektoreetako hainbat agenterekin elkarlanean, Covid-19aren pandemiak eragindako testuinguru berria koordinatzeko egiten ari diren ahalegina sendotzen duen adibidea da.

**Informazio gehiagorako:**

Jara Ayucar

[komunikazioa@zineuskadi.eu](mailto:komunikazioa@zineuskadi.eu)

+34 636 80 62 21 [www.zineuskadi.eu](http://www.zineuskadi.eu)